

6. Pasabidea: Kaltxango

Pasabide honetan dauden semaforo guztiak gainerakoekin sinkronizatuta daude, beraz, semaforo horietako edozeinen funtzionamendu-denbora aldatu ezker, bertan dauden beste semaforoen funtzionamenduan eragingo du.

a) Bizkaia Etorbideko pasabidea (Oencontro eta Lex tabernen parean)

Pasabide honetan oinezkoek espaloi bien artean gurutzatu beharreko distantzia 7 m-koa da, beraz, oinezkoak pasatzeko gutxieneko funtzionamendu-denbora 14 segundo dira.

Oinezkoak pasatzeko argi berdez egun dagoen denbora 20 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 90 segundo.

Ibilgailuen kasuan, argi berdez pasatzeko duten denbora 81 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 20 segundo.

b) Areitiora igoerako hasieran dagoen pasabidea

Pasabide honetan oinezkoek espaloi bien artean gurutzatu beharreko distantzia 8 m-koa da, beraz, oinezkoak pasatzeko gutxieneko funtzionamendu-denbora 16 segundo dira.

Oinezkoak pasatzeko argi berdez egun dagoen denbora 22 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 88 segundo.

Ibilgailuen kasuan, Eibarrerantz joateko argi berdez pasatzeko duten denbora 32 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 74 segundo; Zaldibarrerantz argi berdez pasatzeko duten denbora 79 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 27 segundo.

c) Zearkaleko pasabidea (autobus-geltokiaren ondoan).

Pasabide honetan oinezkoek espaloi bien artean gurutzatu beharreko distantzia 8 m-koa da, beraz, oinezkoak pasatzeko gutxieneko funtzionamendu-denbora 16 segundo dira.

Oinezkoak pasatzeko argi berdez egun dagoen denbora 20 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 90 segundo.

Ibilgailuen kasuan argi berdez pasatzeko duten denbora 32 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 20 segundo

d) VI Mendeurrena kaleko pasabidea (Euskadiko Kutzaren parean)

Pasabide honetan oinezkoek espaloi bien artean gurutzatu beharreko distantzia 11 m-koa da, beraz, oinezkoak pasatzeko gutxieneko funtzionamendu-denbora 22 segundo dira.

Oinezkoak pasatzeko argi berdez egun dagoen denbora 22 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 88 segundo.

Ibilgailuen kasuan, Areitiorantz joateko argi berdez pasatzeko duten denbora 84 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 20 segundo

Kaltxango inguru horretan beste hiru semaforo daude ibilgailuen zirkulazioa antolatzeko: bata Bilborantz doazen ibilgailuentzat (35 segundo ditu argi berdez pasatzeko), beste bat norabidea aldatzekoa edo Eibarreranzkoa (20 segundo ditu argi berdez pasatzeko), eta azkena Markina eta Zearkalerantz (89 segundo ditu argi berdez pasatzeko).

Une honetan aipaturiko lekuren batean denborak aldatu ezker, gainerako semaforoetan ere egokitu eta berrantolatu egin beharko lirateke oinezkoak eta ibilgailuak pasatzeko denborak, hortaz, oinezkoentzako denbora gehitzeak ibilgailu gutxiago pasatzea ekarriko luke eta, ondorioz, ibilgailu pilaketa handia izan ohi den bide-gune horretan auto-ilarak handitzeko arriskua.

Hala eta guztiz ere, semaforo horiek lanegun eta asteburuetarako ordutegi ezberdinak ezartzeko aukera eskaintzen dute, bai ibilgailuentzat eta bai oinezkoentzat, beraz, Ermuko semaforoan mantentze-lanak egiten dituen SICE enpresari, horren bideragarritasun-azterketa egiteko eskatzea proposatu da.





AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Ermuan ditugun semaforoen ezaugarri teknikoak deskripzioa

HOJA 2.

